



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2017.09.29an EGINDAKO
BILKURA BEREZIKO AKTA**

LEHENDAKARIA

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

BOKALAK

AITOR GABILONDO ARENAZA (ordezkoa)
ELENA LETE GARCIA
LANDER ARREGI INCHAUSTI
MARIA UBARRETXENA CID
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA

ARETXABALETA
BERGARA
BERGARA
ARRASATE
ARRASATE
ESKORIATZA

ETORRI GABEAK

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA
IBON ARRUPE ALDECOCEA
OSCAR GARCÍA HORRILLO
SABINO AZCARATE LETURIA
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
ENEKA ZANKADA REMENTERIA
MIKEL BIAIN BERRAONDO
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ANTZUOLA
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
ELGETA
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI
OÑATI

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2017ko irailaren 29an, 9:00etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkorro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren presazko bilkura berezia hasi da, goian aipaturikoak bertan direla, ondorengo gaia tratatzeko.

1.- Bilera honen presari buruzko erabakia

Bilkura honen presaren arrazoiak azaldu dira. Etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren kontratista berriak, "UTE DEBAGOIENA 2017", urriaren 1etik aurrera eta aldi batez ehunkien bilketa zerbitzua eman ahal izateko aipatu kontratuaren lehen aldaketa onartu beharra dago. Ehunkien bilketa zerbitzua aipatu kontratutik kanpo gelditu zen gaur egun indarrean dagoen ehunkien kudeaketa kontratua 2017/11/25ean amaitu ondoren, ehunkien bilketa eta kudeaketa bateratzeko. Beraz, aldaketa hau urriaren 1ean hasi eta ehunkien bilketa eta kudeaketa kontratu berria indarrean sartu arte izango litzateke.

Gobernu Juntak aho batez onartu du bilkura honen presa.

2.- Etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko UTE DEBAGOIENA 2017 enpresa elkartearekin sinatutako kontratuaren lehenengo aldaketa

Zegokion prozedura jarraitu ondoren, pasa den irailaren 25ean sinatu zuen Mankomunitateak "UTE DEBAGOIENA 2017" enpresa elkartearekin bere 8 udalerrietan etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko kontratua. Kontratu hau irailaren 30ean, bihar, 22:00etan, sartuko da indarrean.

Kontratu honetatik kanpo utzi zen ehunkien bilketa zerbitzua, gaur egun indarrean dagoen ehunkien kudeaketa kontratua 2017/11/25ean bukatu ondoren, ehunkien bilketa zein kudeaketa bateratu nahi dituelako Mankomunitateak, betiere kudeaketa optimizatzeko helburuarekin.

Orain, Ingurumen Zerbitzuak, aukera guztiak aztertu ondoren, uste du egokiena dela behin behinean, 2017/10/01ean hasi eta ehunkien bilketa eta kudeaketa kontratu berria indarrean sartu arte, ehunkien bilketa zerbitzua hau UTE DEBAGOIENA 2017 enpresa elkartearekin sinatutako kontratuaren aldaketa baten bitartez ematea.

Hau dela eta, etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko UTE DEBAGOIENA 2017 enpresa elkartearekin 2017/09/25ean sinatutako kontratuaren lehen aldaketa-espeditentia bideratu da.

Aldaketa-proposamena ikusirik, kontratistaren adostasunarekin, Gobernu Junta honek aho batez ondorengo ERABAKI DU:

1. Mankomunitate honetako udalerrietan etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko kontratuaren lehen aldaketa onartzea, Administrazio Klausula Berezien Agiriko 16. klausulan ezarritakoaren arabera, eta aldaketa-proposamenean zehazturiko terminoetan.

2. Kontratuaren prezio berria onartzea, hilean 205.626,81 €-koa izango delarik, gehi BEZ.
3. Aldaketa honen ondorioz kontratuaren prezioan izandako gehikuntzari erantzuteko dagokion gastua onartzea.
4. Behin betiko bermea dagoenetan uztea, kontuan izanda behin behineko aldaketa bat dela kontratuaren hasierako prezioaren %0,60ra iristen ez dena.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 9:15etan, bukatutzat eman da bilkura.